

DIAZ NOCI, Javier

Kazetaritzako irakaslea  
EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea  
Sarriena auzoa, z/g  
48940 Leioa (Bizkaia)  
pdpdinoj@lg.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 139-140]



**1. Sarrera. 2. Euskal komunikabideen bilakaera azken bi hamarkadotan. 3. Paneleko konklusioa. 4. Etorkizunari begira, legea aldatu behar ote?**

## 1. Sarrera

Orain dela hogeit hamar urte, Francisco Franco generala hil, 1978an Espainiako Konstituzioa indarrean jarri eta 1980an Autonomia Estatutua promulgatu ondoren Euskal Herrian —esan nahi da, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatutako Autonomia Erkidegoan— euskara ofizial bihurtu zen. Hobeto esanda, gaztelaniarekin batera ofizial egin zen. Hainbat ezberdintasunekin, ordea: Konstituzioak gaztelania ezagutu egin behar dela dioen arren, gainontzeko hizkuntzak erabil egin daitezkeela dio. Autonomia Estatutuak Konstituziotik eratorritako lege organikoak direnez gero, agindu hori derrigorrez bete behar da.

Arazo horretaz beste legelari batzuk aritu eta ariko dira, ez da beraz gure egitekoa oraingo honetan horretaz luze aritzea. Arau konstituzional horrek, baina, ederki markatu ditu hizkuntzei buruzko ondorengo lege guztiak.

Jardunaldiotan horietako batez aritu ginen: Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Oinarrizko Legeaz, azaroaren 24ko 1982/10 Legeaz alegia. Lege horretan, gai horretaz izan dugun bakarra —beste leku batzuetan, Katalunian alegia, bigarren bat badute—, komunikabideak aipatzen dira. Komunikabideei buruz, eta haiek euskara nola eta zer puntutaraino erabiltzen duten, arituko gara oraingon.

Aipatutako Euskararen Legea eta botere publikoek komunikabideei buruzko politika garaikideak dira. Ikusentzunezko komunikabide publikoa, EITB, garai hartakoa da. 1982koa da

EITBren Legea (5/1982) eta 157/1982 Dekretua, Euskal Telebista sortzen duena. Ordudanik, beraz, lege-ekimen publikoak, hizkuntzari zein komunikabideei dagokienez, elkarrekin joan dira.

Ekimen pribatua lehendik zetorren, jakina, eta ondoren ere jarraitu du. Dударik gabe, Euskararen Legeak eta ekimen publikoak ekimen nabarmena izan du komunikabide pribatuetan.

Hori dena aztertzea izan zen komunikabideei buruzko panelaren zeregina. Horretarako, zenbait arlotan banatu dugu lana, eta beste horrenbeste adituri gonbidapena luzatu diegu. Arloak hauexek izan ziren: alde batetik, ikusentzunezko komunikabide orokorrak, EITBrenak alegia. Prentsa idatzia ere hizpide izan genuen, bitan banatua: hedadura nazionaleko prentsa eta aldizkariak, alde batetik, eta tokian tokiko komunikabideak, beste alde batetik. Azkenik, ezinbestekoa iruditu zitzaigun komunikabide berriez aritzea. beraz, Interneteko euskal komunikabideak ere aztertu genituen.

Egin dezagun sarrera historiko txiki bat eta, aztertzen ari garen legearen haritik, hainbat galdera plazaratu. Hona hemen, lehenik eta behin, errepasotxo historikoa. Neure ikuspuntua azalduko dut, eta kritika ere baztertu nahi gabe.

## 2. Euskal komunikabideen bilakaera azken bi hamarkadotan

Egia hutsa da gaur egun euskaldun gehienengana iristen den komunikabidea EITB dela, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren mugetatik at ere. Nafarroara —non irrati-telebista propiorik ez dagoen, ez erdaraz ez euskaraz— eta Iparraldera. Han ere ez dago hedadura osoko irrati-telebistatik, beraz garrantzitsua da hemengo

euskal irrati-telebista iristea. Beste alde batetik ikusita, horrek ere esan nahi du EITBk, gaur egun, ez duela arlo honetan konpetentziarik inon, hedadura osoko ikusentzunezko komunikabide pribaturik ere ez dagoelako.

Hala ere, EITB eta Euskal Telebista sortu zituzten lege-testuetan halaxe agertzen bada ere helburuen artean, ez dirudi euskal kultura —edozein delarik kontzeptu irristakor hau— eta hizkuntza bultzatzea denik EITB mugiarazten duen irizpide bakarra. Ezta nagusia ere. Argi dago EITBren barruan diru gehien eta publiko gehien ematen duten komunikabideak erdarazkoak direla. Horrela bakarrik adieraz daiteke nola sortu zen ETB-2 1986an, ia-ia abisatu gabe, erdi izkutuka. Jakina, legez posible da, eta hainbat euskal herritarrek —gehiengoak, alegia— ezagutzen ez duten hizkuntza batean emititzeak abantailak baditu. Euskararentzat ere bai? Hor dago galdera. Ez du ematen, ordea, euskararen —hobe: euskaldunon— diglosia gairiditu denik edo egoera mingarri hori gainditzeko onena denik. Halako “diglosia” bat ere somatzen da programazioan: ETB-2an eta ETB-1ean erabat ezberdinak dira. Ez horrenbeste, ordea, irradian, non irrati-formula bete-betean jarraitzen duen Euskadi Gaztea alde batera utzita, bai Euskadi Irratiak bai Radio Euskadik programazio orokorra eskaintzen duten. Telebistan, aldiz, ETB-1ean futbola da nagusi. Asko ikusten da, baina, behin eta berriro esan denez, berdintzen al da? Horrek, jakina, audientziak gizentzen du, baina euskararentzat mesedegarri al da? Umeentzako saioak ere —haien artean marrazki bizidun atzerritar dexente— eskaintzen ditu, normalagoa denez etorkizuneko publikoa zaindu eta hezi nahi izanez gero. Eta halako apustu bat —*Goenkale* kulebroia nagusi— produkzio “propio”-ko saioen alde. Egia esan, kanpoko produktoreek egindako saioak dira. Merkatuak agintzen du. Lehiaketak, film eta saio amerikarrak, beste edozein telebistatan (pribatutan, zehaztuko luke baten batek) bezalaxe, osatzen du ETB-1en programazioaren parte nagusia. Eta folklorea.

Gure irrati-telebista ofizialaren eredia? Bada Europa osoan aspalditxotik krisian omen dagoena baina nagusi dena. Ereduek europarra eta espainol samarra, RTVEren eredutik —legala, adibidez— hain gertu. Finantza bidea, adibidez. Diru publikoa —Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko aurrekontuaren parte handi bat—, baina publizitatea ere mezpreatzen ez duena —eta programazioan eragina duena, jakina—. Legalki, ekonomikoki eta programazioari dagokionez, gure irrati-telebista ofiziala homologa daiteke beste edozein telebistarekin, batez ere inguruko telebista ofizialekin. Lorpenak eta akatsak errepikatu al dira? Badugu komunikabide ofizialik eta komunikabideei buruzko politika ofizialik, baina, politika hori posible den bakarra al da, onena al da? Hona hemen beste galdera, nire ustez, inportante bat.

Gainontzeko komunikabide publikoek ez dute izan eta ez dute konpetentziarik euskararen

arloan. RTVEk ez du borondaterik erakutsi —eta Euskal Herriko botere publikoek, bide batez esanda, ere ez— Euskararen Legea betearazteko: 24. artikulua arabera, Gobernuak RTVEren gune emisoreetan euskararen behar bezalako presentzia ziurtatu behar du. Hamabost urteetan, euskararen presentzia oso murrizta izan da Euskal Herriko RTVE. Kanal autonomikoa zen Radio 4ren bizitza laburrean ere ez (1990-1991), kazetari euskaldunen baten ekimenez egindako hainbat irratsaio kenduta. Badirudi Madrileko eta Gasteizko gobernuak betebeharrak banatu dituztela. Hamabost urteetan kezarik ez, ahaleginik ez, presiorik ez.

EITBn bildu dira ahalegin publiko guzti-guztiak. 1980ko *Dema* aldizkaria sortu zuten eta handik gutxira desagertu egin zen. Euskal egunkariarekin ere ez ziren oso fin ibili, eta ekintza pribatua gailendu zen. Komunikabide idatziei dagokienez, politika publikoa diru-laguntzak ematea da. Eta, dirudienez, ez nahikoa. Hona hemen, beraz, beste galdera bat. Nahikoa, justua, komenigarria al da publikoak ez diren komunikabideei diru-laguntza publikoak ematea? Zenbaiterainokoak izan behar dira, zer irizpide erabili behar dira? Noiz arte beharko du arlo pribatuak —prentsak, batez ere— diru publikoa? Betiko “madarikapena” al da?

Komunikabide pribatuak egon badaude. Urteak eta urteak euskara hutsezko egunkaririk izan gabe, 1990ean *Euskaldunon Egunkaria* sortu zen. Ez gatazkarik gabe, ordea. Urte batzuk lehenago, 80ko hamarkadaren azken urteetan, diru publikoa eman zuen Eusko Jaurlaritzak egunkari itxura zuten bi astekari argitaratzeko, *Eguna* (*Deia* argitaratzen duen Iparragirre enpresarena) eta *Hemen* (*Egin* argitaratzen zuen Orai enpresaren), euskara hutsezko egunkari baterako, edo batzuetarako, bidea prestatu nahian edo. *Argiak*, baldintzak betetzen ez bazituen ere, ez zuen dirulaguntzarik jaso. Bitartean, gobernuak ikerketa bat eskatu zuen, eta emaitzek argi eta garbi utzi zuten egunkari bakarrarentzako lekua zegoela. Lehia hasi zen Eusko Jaurlaritzan eta talde pribatu baten artean. Azken honek lortu zuen 1990ean *Euskaldunon Egunkaria* kaleratzea, gaur arte merkatuan, bere eskasia guztiekin, dagoen euskal egunkari bakarra. Honen haritik, jakina, galdera batzuk datozkit burura. Bakarra izanda, eta pribatua izan arren, Euskararen Legea kontuan hartuta —hirugarren kapitulua, komunikabideez ari dena— botere publikoak ez al daude behartuta laguntza ematea? Berriz ere, zenbaiterainokoa? Ahal den gehiena, esango du baten batek. Ederki. Beste galdera bat: gaur egun ere, edo etorkizun gertu batean, merkatuak ametituko al ditu beste euskal egunkari batzuk? Ahaleginik egin al da arlo honetan? Baliteke enpresa pribaturen batek, publiko gaztea —euskalduna eta euskaraz hezia— erakarri nahian proiekturen bat plazaratzea? Dударik gabe, bere garaian asmatutako egitasmo publikoak ez dira errepikatuko, antza. Komunikabide idatzi publikorik

ez dagoen inguru batean, ez dirudi hau denik gure artean ere formula erabilgarriena.

Tokian tokiko komunikabideak: ez gara izan Euskal Herrian asmatu ditugunak, baina gure artean nahiko arrakastatsuak dira azken urteotan, batez ere euskara hutsezkoak. Nahiko berandu hasi ziren: 1988an sortu zen Arrasate Press. Gaur asko eta asko, gero eta gehiago gainera, badira, idatziak eta ikusentzunezkoak, aldizkariak, irriatiak eta telebistak. Dirulaguntzak ere jasotzen dituzte, eta hor dago gakoa. Posible izango al da noizbait erabat autonomo izatea?

Euskal Herriko edo Euskal Herrian ere aritzen diren gainontzeko komunikabide pribatuetan euskararen presentzia eskasa da edo erabat nuloa, deuseza. Ba al dago biderik, eta komenigarria al da, botere publikoek nolabait bultzatzea? Nola? Dirulaguntzak emanda? 1985ean, adibidez, Gasteizko Legebiltzarrak dirulaguntza bat eman zuen agentzia batek euskaraz ere albisteak zabal ditzan. Vasco Press-ek eskuratu zuen, baina hasieran Efe ere —titularitate publikoko komunikabide bat!— eskatzeaz egon zen. Itzultzaileetan oinarritutako esperimendua 1992an bukatu zen. Orain zenbait agentzia-albiste egiten dira euskaraz. Euskal komunikabideek beharko luketen beste, dudarik gabe, ez. Hona hemen gure informazio-panoramaren beste eskasia bat.

Kataluniako legean ez bezala —eta hartan ere, bakar-bakarrik zenbait komunikabide berrietan (kable bidezko telebistan, adibidez)—, gurean ez da euskararen presentzia inolaz ere ziurtatzen. Dena uzten da oso termino anbiguoetan eta horrek, praktikan, esan nahi izaten du dena diru-laguntzen eskuetan uzten dela. Ahulentzat behintzat. Indartsuek ez dute behar. Merkatuak agintzen du, eta salbuespenak salbuespen, talde handiko komunikabideek indiferentzia baino ez dute erakusten euskararekiko. Euskara erabiltzeak, gaur egun, ez du etekin azkarrik eman. Euskal herritar guztiak, baita euskaldunok ere, erdaldunak garez gero —hau da, gaztelaniaz ere, edo frantsesez hitz egiten dugu—, errentagarriagoa omen da erdara hutsez, edo nagusiki behintzat, aritzea. Merkatua aldatuko ote da inoiz? Eta, hona hemen beste galdera bat, merkatua prest egon arte itxaron behar da —agian neska-mutil koskorak diren ikastolan hezitako euskaldun horiek egunkari-erosle eta telebista-ikusle bihurtu arte— edo merkatua nolabait zuzpertz? Zein da bidea? Egoera aldarazteko, legea ere aldatu behar da?

### 3. Paneleko konklusioak

Panelean azaldu ziren datu eta iritziak entzundakoan, hainbat konklusio atera nituen nik. Lehenik eta behin, euskal kazetaritzaren edo euskarazko informazioaren merkatuaren ahulezia.

Pesimismoa izan zen nagusi. Martxelo Otamendi *Euskaldunon Egunkaria*-ren zuzendariaren hitzak latzak izan ziren: “Ez dugu merkaturik. Ez dugu merkaturik sortu. Ez dugu dirurik merkaturik sortzeko”. Hasier Etxeberria ETBko kazetari eta idazlearen hitzak ere gogorak izan ziren: “Ez dugu telebista normal bat”. Merkatua ere izan zen Joxemari Muxikak azaldu zituen gaietariko bat: “Merkaturik ez dakit dagoen, baina eskaintzarik ez dago”, esan zuen tokian tokiko komunikabideez, arlo bat non legeak eragin eskasa izan duen, bere ustez. Josemari Velez de Mendizabalak hitzak, gutxienez, baikorragoak izan ziren, Interneteko euskal merkatuaren ahulezia eta eskasiak salatu bazituen ere: Internet merkatu bat dela, “zoko” bat non gauzak saltzen diren azpimarratu ondoren, “merkatu txikia bada ere, errentagarritasuna aurkitu behar zaiola” esan zuen. Merkatu global horretan, produktuak onak izan behar dira derrigorrez.

Euskararen Legea eta, oro har, demokrazia iritsi eta Estatutua indarrean jarritakoan, asko da euskarazko komunikabideetan egin dena, nabaria izan da aurrerapena. Bistan dago: lehen ez geneuzkan gauza batzuk orain badauzkagu: irriti eta telebista publiko bat, euskaraz —euskaraz ere bai, behintzat—, euskara hutsezko egunkari bat, eta Interneten ere bagaude, politika egokirik ez badago ere. Interneti dagokionez, berriz ere ekimen pribatuak gehiago egin du ekimen publikoak baino —kazetaritzan behintzat—. Hor dugu *Argia*-ren kasua.

Baina egoera ez da, inolaz ere, idilikoa. Ez gara utopiaz ere ari, argi eta garbi utz dezagun. Beste hizkuntza batzuetan dagoen egoeratik oso urrun gaude. Esaterako, katalanezko mundutik oso urrun. Prentsa idatziari dagokionez —Otamendiren adibide ezin egokiagoa da hau— kioskoetan aurki daitekeena ez da berdina euskaraz eta erdaraz. Eskaintza ez da parekagarria ezta urrundik ere. Beraz, konklusioa zera da: euskaldunok hainbat informazio-behar asetzeko erdal komunikabideetara jo behar dugu nahi eta nahi ez. Merkatu ahul horretan, euskal prentsak aurre egin behar dion hainbat arazori. Banaketa, adibidez, izugarri garestia da. “Zerbitzu moduan zor diogu herri honi, eta ezin eskaini”, etsipenez ahoskatutako hitzak dira, Martxelo Otamendirenak. Kexak ez ziren falta: publizitate ofizialaren banaketa hobeto banatzeko arauak edo kontrola faltan du euskara hutsezko egunkari bakarraren zuzendariak. Etorkizuna begira, kezkatuta agertu zen Otamendi. Hala ere, zenbait proposamen egin zituen, bere testuan irakur ditzakezuenak.

Irrati eta telebista ofizialaren arloan Hasier Etxeberria ere kezkatu agertu zen hainbat momentutan. EITB beharrezkoa zen —eta da—, telebista erabakiorra izan da euskararentzat, eta izaten jarraituko du. Hala ere, gauzak asko aldatu badira ere, ez dira erabat aldatu: ETB baino lehenago ez zegoen euskarazko telebistarik. Baina orain ere, eredu ofiziala alde batera utzita, Euskal Herri osora hedatzen den beste euskal telebistarik

ez dago, eta etorkizunean egoteko esperantza gutxi. Iñaki Zarraoaren agintepean sorturiko atzerapena —Etxeberriaren ustez behintzat— nabaria izan zen. Paradoxak badaude: publiko gehiago lortzeko ahaleginetan “ia mutu” bihurtu zen ETB-1, kirola eta folklorea neurri batean nagusitu baitziren. Lan-baldintzak ere —eta hori, nire ustez, salagarria da edozein ikuspuntutik, are gehiago guztiok ordaintzen dugun enpresa publiko bati dagokionez— gero eta kaskarragoak izan dira (bekadunak, kanpo-produzitzailak...), izan ere produktuaren kalitatea jaitsi da nabarmenki.

Egin gabekoak egon badaude: hizkuntz-eredu finko bat erabakitzeke dago —euskara batua onartzeaz gain, berezko hizkera aurkitu behar du EITBk eta, oro har, euskal kazetaritzak—, hizkera “malgua, bizia, kutsatua eta kutsagarria”, non “argotak, euskalkiak, erregistro ezberdinak” sartzen diren. Tradizioa eza gainditu eta dena ez utz senaren eta inprobisazioaren eskuetan. Eta, hedadurari dagokionez, Hasier Etxeberriak salatu zuen testimonialismo gainditzea.

Tokian tokiko komunikabideen panoramak ere zenbait sorpresa ekarri zigun. Joxemari Muxikaren testuan aurkituko dituzuen datuen haritik, halako hedabide gehienak Gipuzkoan biltzen dira, batez ere Debaldean. Bizkaian, aldiz, merkatua ez da finkatu. Zergatik, hori beste kupel bateko sagardoa dugu. Batzuetan euskal kazetaritzaren harrobia iruditzen zitzaigun arlo edo merkatu-zati hau ez da, beraz, hain indartsu.

Interneti buruzko saiotxoak aurkeztean, gehiegitan “etorkizuna” hitza sare telematikoekin saihestu nahian nik azpimarratu nuen Internet “orainaldia” dela. Josemari Velez Eusko Ikaskuntzaren gerente eta *Euskonews* aldizkari digitalaren arduradunak, aldiz, “errealitate bat baino gutxiago” dela azaldu zuen. Gaurko panorama Euskal Herrian ez da, ez, arrosa kolorekoa: oso gutxi erabiltzen dugu euskaldunok —Euskal Herriko hiritarrok, oro har—, eta erakunde publikoen parte hartzea eskasa izan da orain arte. “Ekimen aktibora pasatzeko ordua da”, esan zuen Velezek. Epe luzerako inbertsioak eta oinarrikoak egitea ezinbestekoa da bere ustez, orangoz “basamortu batean” gaudelako. Ekoizpen propioa bultzatu, interaktibitatearen aukerak miatu, eta euskara bultzatzeko beste hizkuntzak ere aprobetxatu —mundu batean, birtualean alegia, non gaztelania eta frantsesa ere hizkuntza gutxitutzat har daitezkeen eta ingelesa, argi eta garbi, erabat nagusi den—, itzulpenen bitartez. Diskusiorako gaiak plazaratu zituen Velez de Mendizabalek, bere testuan sakonkiago irakur daitezkeenak. Bat nabarmenduko dut nik: informazio bila baino dokumentazio bila doala jendea Internetera. Beraz, gaurko komunikabide tradizionalak ez bezala, informazioa ekoiztu beharrean dokumentazioa sortu behar omen da.

Etorkizuna: Hasier Etxeberriak telebista-kate gehiago ailegatu direla uste du, eta ETB ez

da izango —ez luke izan beharko— euskaraz aritzen den bakarra. Euskal kateak ugalduko al dira? Tokian tokiko komunikabideen etorkizuna autofinantzabidea da J. M. Muxikaren ustez, “zalantzarik dagoenean inbertsio pribaturik ez delako egongo”. Argi. Euskal komunikabideen merkatua finkatu behar da, zabaldu behar da eta autogestionario izan behar da. Utopia bat ote? Are gehiago Interneten kasua? Josemari Velezek pentsatzen du ezetz. Hain globala den ziberespazioko merkatu horretan gurea txikia izan daiteke, baina errentagarria izan behar. La dena dohainik eskura daiteke Interneten, beraz publizitatea izango da finantzabidea.

#### 4. Etorkizunari begira, legea aldatu behar ote?

Azkenik, eta harira etorritik, aldizkari honen zuzendariak hantxe bertan luzatu zituen galderetan datza, ene uste apalean behintzat, udako ikastaroaren gakoak: zer arazo konpon daiteke legearen bitartez? Daukagun legea aldatu behar dugu, txukundu, edo beste lege bat egin? Boteprontoan erantzun batzuk azaldu zituzten gure panelistek: Martxelo Otamendik proposatu zuen ausartak izatea eta publizitate instituzionala zehatz-mehatz arautu, banaketa justuagoa lortzeko. Hasier Etxeberriak, aldiz, uste du lehenik eta behin daukagun legea bete behar dela, lege berririk egin gabe. Kontrol gehiago, publiko eta gardena egikaritzea proposatu zuen. Azkenik, Joxemari Muxikak prudentzia eta zuhurtasuna eskatu zuen eta, legea ukitu baino lehenago —ukitu behar izanez gero—, erreflexio lasai bat egitea gizartean.

Komunikabideei buruzko erreflexioa, eztabaida interesgarriaren beste momentu batean José Luis Lizundiak ere eskatu zuena. Jakina, egin egin behar da, horretan ere ados nago ni. Baina orokorra, hau da, Euskal Herriko komunikabide guztiei buruzko erreflexio bat, ez bakarrik euskaraz aritzen direnei buruzkoa, berriro ere, edozein delarik arrazoa, ghetto izan edota sentitu ez gaitzen. Erreflexio bat komunikabide pribatuaren eta zenbait publikoren jarrerari buruz euskararekiko, adibidez. Erreflexio bat euskararen presentzia Euskal Herriko komunikabide guztietan nola bultzatzei buruz —ni saihestuko nintzateke maizegi legeetan agertzen den edo ustez agertu behar den “derrigortu” hitzetik—. Erreflexio bat, azken buruan euskaldunoi informazioa jasotzeko eskubideak nola bermatzei buruz. Informazioa jasotzei buruzko eskubideak eta informazio plural bat jasotzei buruz. Alegia, zabala izan beharko lukeen informazio-merkatuan nahi dugun informazio-mota. Edozein ikuspuntutik eta edozein hizkuntzatatik jasotzeko eskubideak bermatu. Hitz batean: aukerak jarri gure eskuetan, nor bereak aske eta borondatez, asmoz eta jakitez, hauta ditzan. Ez al datza horretan, hain zuzen, demokrazia?